



KIMIKAKO GRADUA

4. MAILAKO IKASLEAREN GIDA

2023-2024 IKASTURTEA

Edukien taula

1.- Kimikako Gradua.....	3
Ikasketen antolaketa	3
Modulu Aurreratua	3
Irakaskuntza jarduera.....	4
Ebaluaziorako prozedura orokorra	4
Gradu Amaierako Lanak	5
Kimikako Graduako araudi espezifikoa:	5
Mugikortasuna	5
Kanpoko praktika akademikoak	5
Tutoretza akademikoak.....	6
Tutoretza Plana (TP)	6
Koordinazioa	7
Bestelako informazio interesgarria	7
2.- Taldearentzako informazio espezifikoa	8
Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan	8
Taldeari dagozkion jardueren egutegia	8
Irakasleak	8
3.- Laugarren mailako irakasgaiak	8

Gida hau Kimikako Graduako Ikasketa Batzordeak (KIMGIB) egin du

1.- Kimikako Gradua

Kimikako Graduaren helburu nagusia kimikako prestakuntza integrala eskaintzea da. Beraz, lau urte horiek igarotakoan, material eta prozesu kimikoak ezaugarritzeko, sintetizatzeko eta analizatzeko beharrezkoak diren hainbat fenomeno fisiko-kimiko ulertzeko eta erabiltzeko gai izango zara. Kimikako graduatu gisa, kimikaren edozein arlotan jarduera profesional zientifikoak eta teknikoak (besteak beste, industria proiektuak) gauzatu ahal izango dituzu.

Kimikako Graduaren ezaugarri nagusienetako bat bere izaera esperimental nabarmena da. Izan ere, bertan ematen diren irakasgaien %30 praktikoak dira, hau da, laborategian lan egitea barne hartzen dute. Kopuru horri gradu amaierako lana gehitu behar zaio (18 kreditu), guztiz esperimental eta aplikatua izango baita. Gainera, enpresetan praktikak egiteko aukera eskaintzen du hautazko jarduera gisa, gehienez 12 kredituren truke.

Ikasketen antolaketa

1. taulan ikus daitekeen bezala, Kimikako Gradua hiru modulutan banatuta dago: oinarrizkoa (lehen maila), funtsezkoa (bigarren eta hirugarren mailak) eta aurreratua (laugarren maila). Azken horrek, gainera, gradu amaierako lana barne hartzen du.

1. taula. Kimikako Graduaren banaketa, moduluen eta arloen arabera:

Modulua	Arloa	Kredituak
Oinarrizkoa (1-2 seihilekoak)	Kimika	24
	Matematika	12
	Fisika	12
	Natura-Zientziak	12
Funtsezkoa (3-7 seihilekoak)	Kimika Analitikoa	24
	Kimika Fisikoa	24
	Kimika Ez-organikoa	24
	Kimika Organikoa	24
	Kimika Osagarriak (Ingeniaritza Kimikoa, Biokimika eta Materialen Zientzia)	24
Aurreratua (5-8 seihilekoak)	Hautazko Irakasgaia	42
	Gradu Amaierako Lana	18

1. ikasturtea		2. ikasturtea		3. ikasturtea		4. ikasturtea	
1. Seih	2. Seih	3. Seih	4. Seih	5. Seih	6. Seih	7. Seih	8. Seih
ROI	ROII	KA I	KA I	KA II	KA II	MZ	Haut. 5
MI	M II & E	KFI	KFI	KF II	KF II	IKP	Haut. 6
G	B	KII	KII	KI II	KI II	Haut. 3	Haut. 7
OBL	MER	ROI	ROI	RO II	RO II	Haut. 4	GrAL
F	F	Esp. KI	Esp. KI	Esp. KA	Esp. KA	GrAL	GrAL
		Esp. KF	Esp. KF	IK	IK		
		BK	BK	Haut. 1	Haut. 2		

1.- Irudia. Kimika Graduaren planifikazioa FCT/ZTF-an

Modulu Aurreratua

Graduaren 4. mailan, Funtsezko Moduluari (M02) dagozkion derrigorrezko bi irakasgai daude, "Oinarrizko osagarriak Kimikan" materiaren barnean daudenak. Modulu Aurreratua (M03) hautazko irakasgaiez eta Gradu Amaierako Lanaz* dago osotua. Irakasgai guztiak 6 kreditukoak dira, eta Kimika Organikoa, Kimika Analitikoa, Kimika Ez-organikoa, Kimika Fisikoa eta Kimikako Osagarriak jakintza arloei dagozkie. 2. taulan l4. maila honetan eskainitako derrigorrezko eta hautazko irakasgai guztiak (lauhilabetekoak) adierazi dira. Bertan, irakasgai bakoitza zein hizkuntzatan irakatsiko den ere ikus daiteke.

2. taula. Graduko 4. mailako irakasgaiak:

Irakasgaiak	Iraupena	Hizkuntza	Kredituak	Mota	Modulu
Materialen Zientzia	1. lauhilab.	G, E	6	Derrig.	M02
Komunikazioa Euskaraz: Zientzia eta Teknologia	2. lauhilab.	E	6	Hautaz.	
Kutsatzaile Kimikoak eta Erradioaktibitatea	2. lauhilab.	G, E	6	Hautaz.	M03
Egitura Organikoak Zehaztea	1. lauhilab.	G, E	6	Hautaz.	M03
Interfase eta Koloideak	1. lauhilab.	G, E	6	Hautaz.	M03
Euskararen Arauak eta Erabilerak	1. lauhilab.	E	6	Hautaz.	
Industria Kimikako Proiektuak	1. lauhilab.	G, E	6	Derrig.	M02
Ingurumen eta Auzitegirako Kimika Analitikoa	1. lauhilab.	G, E	6	Hautaz.	M03
Industriako Kimika Analitikoa	2. lauhilab.	E	6	Hautaz.	M03
Polimeroen Kimika	2. lauhilab.	G, E	6	Hautaz.	M03
Kimika Organometalikoak	1. lauhilab.	G, E	6	Hautaz.	M03
Sintesi Organikoa	2. lauhilab.	G, E	6	Hautaz.	M03
Gradu Amaierako Lana: 18 kreditu aurrebaldintzak dituena					

E=euskara; G= Gaztelera

Irakaskuntza jarduera

Azaldutako helburuak betetzeko, irakaskuntza jarduera bertaratu honela banatu da: eskola magistrala (M), gelako praktikak (GA), ordenagailuko praktikak (GO), laborategiko praktikak (GL) eta mintegiak (S). Modulu honi dagozkion 2. mailako irakasgaien banaketa 3. taulan ikus daiteke.

Bertaratutako ordu bakoitzak batez besteko 1,5 orduko lana dakar, ikasketa jardueren eta lan zuzenduen artean banatuta.

3. taula. Irakaskuntza orduen banaketa (bertaratutako orduak):

Irakasgaia	M	S	GA	GL	GO
Materialen Zientzia	40	12	8		
Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz	20		20		20
Kutsatzaile Kimikoak eta Erradioaktibitatea	30	7,5	15	7,5	
Egitura Organikoak Zehaztea	20	6	34		
Interfase eta Koloideak	33	6	15	6	
Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz	20		20		20
Industria Kimikako Proiektuak	45		15		
Ingurumen eta Auzitegirako Kimika Analitikoa	30	6	4	20	
Industriako Kimika Analitikoa	30	3		12	15
Polimeroen Kimika	30	6	16	8	
Kimika Organometalikoak	30	6	24		
Sintesi Organikoa	30	6	24		
GUZTIRA	358	51	195	46	55

Ebaluaziorako prozedura orokorra

Ebaluazioaren helburua aipatu ditugun gaitasunak eskuratu dituzula zehaztea da. Irakasgai bakoitzean bere helburuei hoberen egokitzen zaizkion estrategiak hartuko dira kontuan, jarraian erantsitako irakaskuntza gidan kontsulta daitezkeenak. Oro har, irakasgai guztiek ebaluazio jarraitua eta proba espezifikoak barne hartzen dituzte.

Irakasgai teorikoetan, ebaluazioak proba teorikoak eta teoriko-praktikoak barne hartzen ditu, ahozkoak zein idatzizkoak; eta eskoletara bertaratzea kontuan hartuko da.

Irakasgai esperimentaletan, aldiz, bertaratzea nahitaezkoa da, eta azken emaitza bi ataletan banatzen da: alde batetik, laborategiko lanei dagozkien zereginak, eta, bestetik, froga teoriko praktiko bat. Lehen atalari dagokionez, hauek hartzen dira kontuan: laborategiko zereginen prestaketa lana, lana segurtasun arauetara jarraituz egitea, higiena eta kalitatea, lortutako emaitzen kalitatea, laborategiko txostenak eta koadernoak,

etab. Proba teoriko-praktikoei dagokienez, batetik, lan esperimental bat egin beharko da, eta, bestetik, irakasgaiko gaiekin zerikusia duten zenbait galderari erantzun beharko zaie.

Gainontzeko irakasgaietan, zeregin praktikoak eta teorikoak dituztenak hain zuzen, ebaluazioak zeregin teoriko-praktikoak eta esperimentalak hartuko ditu kontuan, bakoitza dagokion pisuaren arabera. Bi kasutan aurrez aipatutako ebaluazio irizpideak hartuko dira kontuan.

Gradu Amaierako Lanak

Gradu Amaierako Lana (GrAL) ikasle bakoitzak zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean banaka egin behar duen proiektu, memoria edo azterlana da. Lan horretan txertatu eta garatu beharko dira, hain zuzen, Gradu ikaskuntza-prozesuan zehar jasotako prestakuntza-edukiak, gaitasunak eta trebetasunak.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Gradu Amaierako Lana Egin eta Defendatzeari Buruzko Arautegian ikasleek GrAL-a egiten hasteko ezagutu behar dituzten fase eta bete beharreko baldintzen inguruko xehetasunak azaltzen dira. Hurrengoak dira 2023/24 ikasturteko data garrantzitsuak:

Aurreinskripzioa (2023ko uztailak 12-14, biak barne): online betetzeko formularioaren bidezko aurreinskripzioa: https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/tfg_aurreinskripzioa.

Inskripzioa edo izen-ematea: GrAL-ean izena emateko, 72 kreditu eduki daitezke gehienez egin gabe (4. mailako 60 kredituak eta aurreko ikasturteetatik gehienez gera daitezkeen 12). Bi aukera daude:

- **2023ko irailak 1-8** (biak barne): irakasleek ikasleekin **adostutako lanen** izenak ematen dituzte eta, aldi berean, adostu gabeko lanen gaiak eskaintzen dituzte, gero ikasleek hautatu ditzaten.
- **2023ko irailak 20-22** (biak barne): **adostutako lanik ez** duten ikasleek GAUREn bidez egiten dute gaien aukeraketa. Zerrendatik gehienez bost gai hautatu daitezke.

Esleipena (2023ko irailak 25-29 (biak barne): GrAL-en gaien behin betiko esleipena egindakoan ikasleei posta elektronikoko bidez mezua helarazten zaie.

Matrikulazioa, memoria entregatzea eta defentsa: matrikulak bi defentsa deialditarako eskubidea ematen du ikasturteko. Matrikulatzeko, ikasleak Gradu kreditu guztiak gaintuta izan behar ditu, GrAL-arenak izan ezik. 2023/24 ikasturtean, honako hauek izango dira matrikularako eta defentsarako datak:

Deialdia	Matrikula eta Memoria entregatzea	Defentsa
Otsaila	2024ko otsailaren 12-15	2024ko martxoaren 4-8
Ekaina	2024ko ekainaren 19-21	2024ko uztailaren 10-12
Abuztua	2024ko uztailaren 19-23	2024ko irailaren 4-6

GrAL-ari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/trabajos-fin-grado>

Kimikako Gradu araudi espezifikoa:

https://www.ehu.es/documents/19559/1482414/Quim_TFG_eus_2021.pdf/448d785a-b5fb-34b5-3c67-5d833ce380a1?t=1612446191505

Mugikortasuna

Fakultateak parte hartzen duen mugikortasun programen bidez, ikasleek aukera izango dute lauhileko edo ikasturte oso batez beste unibertsitate batean ikasteko. Bete beharreko baldintzak eta kontuan izan beharreko gainerako informazioa hurrengo estekan ikus daitezke:

<https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/programas-intercambio-alumnado>

Kanpoko praktika akademikoak

Kanpoko erakundeetan praktikak egitea aukerak zabaltzen dizkie ikasleei lan-munduan sartzeko, eta ezagutza eta gaitasun praktikoak bereganatzeaz ez ezik, lan-eskarmentua ere eskuratzen dute. Kimikako Gradu kanpoko praktika akademikoak egin daitezke, curriculumaz kanpokoak; hau da, boluntarioak dira. Horiek egiteko, 120 ECTS gaintuta behar dira. Informazio gehiago: <https://www.ehu.es/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/insercion-laboral>

Tutoretza akademikoak

Tutoretza akademikoa irakasle batek ikasleei aholkularitza eta orientazio akademikoa eskaintzen dien prozesua da. Aholkularitza honi esker ikasleak laguntza jasoko du ikasten dituen irakasgaietan. Lauhileko bakoitzaren hasieran irakasle bakoitzak bere tutoretza-ordutegien berri emango du.

Tutoretza Plana (TP)

Tutoretza Planaren (TP) helburua da ikasleei unibertsitateko bizitzan integratzen laguntzea eta orientazioa eskaintzea ibilbide akademiko osoan zehar.

Zerbitzu honek, funtsean, Kimikako Graduako Orientazio Zerbitzu baten antzera funtzionatuko du. Zerbitzu honen helburua da:

- prestakuntza integraleko prozesuan ikasleei laguntzea, ikuspegi akademiko, pertsonal eta profesionalean
- ikasleei Fakultatearen jarduera akademikoan integratzen laguntzea
- ikasleei unibertsitatean eskuragarri dituzten zerbitzu eta jardueren berri ematea
- ikasketa aldiaren ager daitezkeen zailtasunak identifikatzea eta ikasteko gaitasun eta estrategien garapena erraztea
- erabakiak hartzen laguntzea, bereziki curriculum ibilbidea aukeratu behar dutenean
- ikasleen garapen akademiko eta profesionalerako interesgarria izan daitezkeen informazioa ematea

Ikasleek Graduako edo Ikasturteko Koordinatzailearen bidez adostuko dituzte kontsultak, hurrengo koordinatzaileekin kontaktuan jarritz:

- a) AHAL DELA, Graduako Koordinatzailea
- b) 1. mailako koordinatzailea
- c) 2. mailako koordinatzailea
- d) 3. mailako koordinatzailea
- e) 4. mailako koordinatzailea

Ikasturteko Koordinatzaileek jasotako eskakizunen berri emango diote Graduako Koordinatzaileari, eskakizun horiei ahalik eta azkarren zein eraginkorren erantzuteko modua adosteko eta ikasleari eskatutako laguntza emateko. Aukera desberdinak daude:

- a) Graduako edo Ikasturteko Koordinatzaileak berak laguntza ematea
- b) beste irakasle bat esleitzea orientazio-eskaerari erantzunik eraginkorrena emateko
- c) arazoari konponbidea emateko aproposa den beste edozein aukera

Gainera, ikasleren batek nahi izatekotan, behin betiko tutore bat eska dezake, bien artean hala adosten badute eta Graduako Koordinatzaileari horren berri ematen bazaio.

Orientazio Zerbitzu honen hobekuntza aldera, Graduako Koordinazioak gertakarien erregistroa osatuko du.

Koordinazioa

Gradu Ikasketen Batzordea (GIB) Graduko koordinazioaz arduratzen da. Hau da, bere zereginen barnean Graduaren curriculumaren garapenean, jarraipenean, errebisioan eta hobekuntzan laguntza ematea daude. Hurrengoak dira Kimikako Graduko koordinatzaileak:

Mota	Koordinatzailea	Kontaktua
Gradua TP	Eider Goikolea Núñez Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila	eider.goikolea@ehu.eus 946015955 CD2.P1.18
1. maila	Eneritz Anakabe Iturriaga Kimika Organikoa eta Ez-organikoa Saila	eneritz.anakabe@ehu.eus 946015548 CD2.P2.5
2. maila	Beñat Artetxe Arretxe Kimika Organikoa eta Ez organikoa Saila	benat.artetxe@ehu.eus 946015992 CD2.P1.20
3. maila	María Teresa Arbeloa López Kimika Fisikoa Saila	teresa.arbeloa@ehu.eus 946015970 CD1.P2.6
4. maila	Nestor Etxebarria Loizate Kimika Analitikoa Saila	nestor.etxebarria@ehu.eus 946015530 CD1.P0.17

Kimikako Graduko GIBei buruzko informazio gaurkotua hurrengo estekan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/comisiones-grado#GraduIkasketenBatzor9>

Gainera, Graduko irakasgai bakoitzerako koordinatzaile bat izendatuko da, zeina irakasgai hura ematen duen irakasle-taldea koordinatzeaz arduratuko baita. Kimikako Graduko irakasgaietako koordinatzaileak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/coordinacion-asignaturas-qui>

Bestelako informazio interesgarria

Graduko zenbait irakasgaitan, irakasleek ikasgela birtuala erabiltzen dute irakaskuntza presentzialaren osagarri gisa. Ikasgela horiek eGelan daude (<https://egela.ehu.eus>). eGelan sartzeko LDAP erabiltzaile-izena behar da, ikasle bakoitzari esleitzen zaiona ikasle berri moduan matrikula egitean. LDAP erabiltzailea GAURen sartzeko ere erabiltzen da. GAUR administrazio tramiteak eta ikasleen bizitza akademikoari lotutako datuak kontsultatzeko erabiltzen den erreminta informatikoa baita.

Kimikako Graduan matrikulatutako ikasle bakoitzak posta elektronikoko korporatibo propioa dauka; kasu honetan ere, ikasle berri moduan matrikula egitean helbidea eta pasahitza esleitzen zaio ikasle bakoitzari. Helbide honetara iristen dira irakasleek, eGelak, dekanotza taldeak eta unibertsitateko bestelako estamentuek bidalitako mezuak. Helbide honetara iristen diren mezuak posta elektronikoko pertsonalera birbideratu daitezke. Informazio gehiago hurrengo estekan: https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/bbc_alumnado. Ikasleek fitxategiak gordetzeko zerbitzua ere badago (<https://www.ehu.eus/es/group/ikt-tic/bildu>).

Posta korporatiboaren erabilerari edo UPV/EHUko zerbitzu informatikoei lotutako edozein zalantza edo arazo izanez gero, gomendagarria da EAZekin (Erabiltzailearentzako Arreta Zerbitzua) harremanetan jartzea <https://lagun.ehu.eus> web orriaren bidez, LDAP erabiltzailea erabiliz. EAZi buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau> estekan.

Zientzia eta Teknologia Fakultateko Ikaslearentzako Arreta Zerbitzuak (ZTFIAZ) aholku ematen die ikasleei, eta enpresetako praktiketan zein mugikortasun programetan parte hartzeko beharrezko izapideez ere arduratzen da. Fakultateko Idazkaritzan kokatuta dago. ZTFIAZi buruzko informazio gehiago <https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/atencion-estudiantes> estekan.

Kimikako Graduari buruzko informazio gehiago:

<https://www.ehu.eus/eu/kimikako-gradua-bizkaia>

Fakultateko web orria:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/>

2.- Taldearentzako informazio espezifikoa

Ikasleen banaketa irakaskuntza taldeetan

Irakasgai batean talde bat baino gehiago dagoen kasuetan, ikasleei bere taldea zein den jakinaraziko zaie lehenengo asteetan zehar.

Taldeari dagozkion jardueren egutegia

Ikastegiko eskola-egutegia webgune honetan kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/calendario>

Ordutegi ofiziala, jarduera bakoitza emango den ikasgelen inguruko informazioa eta azterketen egutegi ofiziala Fakultateko web-orrian argitaratu eta eguneratuko dira. Hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea/egutegia-ordutegiak>

Horrez gain, aurreko estekan ere Graduoko ikasgaietarako izendatutako 5. eta 6. deialdiko tribunalak kontsultatu daitezke.

Irakasleak

Gradu honetako ikasgaiak ematen dituzten irakasleen inguruko informazioa (harremanetarako datuak, tutoretza-orduak) graduoko webgune instituzionalean kontsultatu daiteke:

<https://www.ehu.eus/eu/kimikako-gradua-bizkaia/irakasleak>

Esteka horretan, irakasle baten informazioa ikusteko, nahikoa da irakaslearen izenaren gainean klik egitea.

3.- Laugarren mailako irakasgaiak

Aipaturiko irakasgaien irakaskuntza gidak ondoren bildu dira, nahitaezko eta hautazkoak euskaraz zein gazteleraz eskaintzen direnak, hurrenez hurren. Gidak irakasgaien izenen ordena alfabetikoaren arabera ordenatuta daude.

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

28279 - Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

IRAKASGAI HAU EUSKARAZ BAINO EZ DA ESKAINTZEN.

Irakasgai hau hautazkoa da Kimika gradu 4. mailako ikasleentzat. Komunikazio zientifiko-teknikoa landuko da: dokumentazioa, berrikuspen bibliografikoak eta testu-genero ohikoena. Horretarako, espezializazio maila desberdinetako idatzizko eta ahozko testuak landuko dira: ikerketa-artikuluak, dibulgaziokoak, poster zientifikoak, ahozko aurkezpenak, dibulgazio-hitzaldiak e.a. Berariaz sakonduko da ahozko komunikazioan. Kimika alorreko terminologia eta adierazpideak ere landuko dira aipatutako testu-generoekin lotuta.

Lotura zuzena du gradu berean hautazko irakasgai den Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (IKZTE) irakasgaiarekin (4. mailan egin daitekeena hau ere, lehenengo lauhilekoan). Nolanahi ere, IKZTE irakasgai gehiago sakonduko da idatzizko testu-generoetan eta Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (AKZTE) irakasgai honetan, ahozko eta idatzizko testuak landuko badira ere, lan-ildo nagusia ahozko komunikazioaren bereizgarriak izango dira.

Irakasgaiok lotura zuzena dute baita Kimika Gradu zenbait gaitasun zehatzekin ere:

- G005. Emaitza esperimentalak eta informazio zientifikoa aztertzeke eta interpretatzeko gaitasuna, erabakiak hartzeko. Betiere, planteatutako arazoaren alde tekniko eta etikoak kontuan hartuta.

- G006. Informazioa eta ideiak maila zientifiko eta teknikoan eta gutxienez Europako Komunitateko bi hizkuntza ofizialetan transmititzeko gaitasuna. Betiere, IKTen ahalmenaz baliatuta.

Horretaz gain, gradu amaierako lana prestatzen ari diren ikasleei oso baliagarri izango zaie irakasgai hau, txosten zientifikoak idazteko eta ahozko aurkezpen akademikoetarako beharrezkoak diren baliabideak eta trebetasunak landuko baitira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

1. Goi-mailako tituludunek euskararen erabileran eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan.
2. Informazio zientifikoa bilatzea, ulertzea, sintetizatzea eta kritikoki aztertzea.
3. Ikerkuntzarekin, aholkularitza teknikoarekin eta irakaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko bideak adostea, aurkeztea eta argudiatzea, elkarlana baliatuta.
4. Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki Interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.
5. Zientzia arloko gaiak komunikatzea, komunikazio-testuinguruaren eskakizunak aintzat hartuta: dibulgazio-hitzaldiak, klase magistralak, kongresuetarako komunikazioak, hitzaldietarako euskarri idatzia, poster zientifikoa...
6. Norberaren intuizio eta esperientzia linguistikoak sistematizatu, azaldu eta berrikustea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**EGITARAU TEORIKOA**

1. GAIA: Hizkuntzen kudeaketa ingurune akademiko eta profesional eleaniztunean

1.1. Hizkuntza-eskubideak eta hizkuntza gutxituak

1.2. Hizkuntza gutxituak eta hizkuntza-plangintza

1.3. Euskararen normalizazio-plangintza

1.4. Hizkuntza-ukipena, mailegutza, kalkoak eta hizkuntza-mendekotasuna

1.5. Termino-sorkuntzarako bideak eta hizkuntza-ukipena

1.6. Hizkuntzen kudeaketarako praktika onak testuinguru akademiko eta profesional eleaniztunean

2. GAIA: Hizkuntza-aldaerak eta hiztunen errepertorio linguistikoak

2.1. Hizkuntza-aldaerak: aldaera geografikoak vs aldaera funtzionalak

2.2. Idatzizko eta ahozko testuen alderaketa

2.3. Ortografia eta ortotipografia

2.4. Puntuazioa eta prosodia

2.5. Aldakortasuna ahozko erregistroetan

2.6. Hiztunen errepertorio linguistikoak eta komunikazio formala

2.7. Euskara Batuaren Ahoskera zaindua

3. GAIA: Ahozkorako diskurtso-estrategiak

- 3.1. Ahozko komunikazio akademikoa
- 3.2. Hiztegi eta fraseologia akademikoa: terminoak, kolokazioak eta diskurtso-formulak
- 3.3. Pertsuasioa komunikazio akademiko eta profesional multimodalean
- 3.4. Baliabide erretorikoak: galdera erretorikoak, errepikapena, adibidegintza, birformulazioa
- 3.5. Baliabide fonikoak: etenak, intonazioa
- 3.6 Baliabide ez-berbalak

4. GAIA: Euskararen lantze funtzionala alor akademikoan

- 4.1. Hizkuntza gutxituen biziberritzea: terminologia eta fraseologia espezializatua
- 4.2. Euskararen erregistro akademikoen garapena
- 4.3. Aldakortasuna hizkuntza garatuetan eta normalizazio bidean dauden hizkuntzetan
- 4.4. Hizkuntza-baliabide espezializatuen ezarpena adituen diskurtsoetan

EGITARAU PRAKTIKOA

Ordenagailu-gelako praktikan lau proiektu eramango dira aurrera.

- A. proiektua: Euskararen normalizazioari buruzko eztabaida eta iritzi-artikulua.
- B. proiektua: Ahoskera zaindua identifikatzea, eta ahoz gorako irakurketan erabiltzea.
- C. proiektua. Helburu didaktikoetarako ahozko komunikazioa: klase magistrala eta bideo tutoriala.
- D. proiektua. Komunikazio akademiko espezializatua: GrALaren laburpena, defentsa eta dibulgazio-hitzaldia.

METODOLOGIA

Eskola eta jarduera gehienak praktikoak izango dira, eta, ahal dela, informatika-gelan egingo dira. Horretarako, eGela erabiliko da.

- Banakako lanak
- Talde-lanak
- Ordenagailu-praktikak
- Eskola teorikoak (ariketetan jorraturiko arazo eta egiturak azaltzeko)
- Ahozko aurkezpenak

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		15		30				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	22,5		22,5		45				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ikus ohiko deialdirako eta ezohiko deialdirako orientazioak. % 100

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren ebaluazioa jarraitua izango da. Ebaluazio jarraituak eskatzen du saio guztietara bertaratzeko eta zeregin guztiak garaiz entregatzea. Ebaluazio jarraitua egiten hasi eta alde batera uztea erabakitzen duten ikasleek edo hasieratik bukaerako azterketaren bidez bakarrik ebaluatuak izatea aukeratzen duten ikasleek bukaerako azterketa egiteko eskubidea dute (puntuazioaren % 100). Eskubide hori gauzatu ahal izateko, ikasleak ebaluazio jarraituari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat helarazi behar dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari, lauhilekoaren hasierako 9 astean barruan (16-24 asteetan).

Halako idatzirik bidali ezean, ebaluazio jarraiturako aurkeztutako zereginak kalifikatuko dira.

UPV/EHUko Ebaluaziorako Arautegiko 12.2 artikulua araberak, azken probaren pisua irakasgai kalifikazioaren % 40 edo txikiagoa bada, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino gutxienez hilabete lehenago eskaria egin beharko dute deialdiari uko egiteko. Eskari hori, idatziz, irakasgaiaren ardura duen irakasleari aurkeztu beharko zaio. Hori horrela, deialdiari uko egiten dioten ikasleek «AURKEZTEKE» kalifikazioa jasoko dute aktan; deialdiari uko egiten ez dioten ikasleek, azken proba aurkeztu ez badira, aktan «GUTXIEGI» kalifikazioa izango dute (zenbakizko kalifikazioa: 0).

Ebaluazio jarraiturako tresnak hauek izango dira:

PORTFOLIOA % 30
AHOZKO AURKEZPENAK % 50
GALDETEGIAK % 20 [NAHITAEZ APROBATU BEHARREKOA]

Bukaerako azterketan % 100 ebaluatzea eskatuko duten ikasleentzako orientazioak ezohiko deialdian zehaztutakoak dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren % 100 azterketa bidez ebaluatuko da. Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoeekin lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte azterketa egiten duten ikasleek.

Bukaerako proban erabiliko diren tresnak hauek izango dira:

TEST MOTAKO PROBA % 20
ARIKETA PRAKTIKOAK % 15
IDAZLANA % 15
AHOZKO AURKEZPENAK % 50

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak eGelan jarritako materialak.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

EZEIZA, J; ALDEZABAL, I., ELORDUI, A., ZABALA, I., UGARTEBURU, I., ELOSEGI, K. (2010) PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. EHUko Euskara Errektoreordetzaren sareko argitalpena:
<http://testubiltzia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>
ETXEBARRIA, J.R. (2011) Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak. EIMAre estilo-liburua ETXEBARRIA, J.R. (2014) Komunikazioa euskaraz ingeniartzan. Bilbo. EHU eta UEU
EUSKALTZAINDIA (2018) Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE).
EUSKALTZAINDIA "Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua" (Euskaltzaindiaren 87 araua)
EUSKALTZAINDIA " Aderazpena euskalkien erabileraz: irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan" (Euskaltzaindiaren 137 araua)
Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordea "Ahoskerak axola du"

Gehiago sakontzeko bibliografia

ALVARADO CANTERO, L. (2017) "Géneros académicos orales: Estructura y estrategias de la exposición académica" Revista Nebrija de Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas.
ALCOBA, S. (1999) La oralización. Barcelona: Ariel Practicum.
BONDI, M. eta LORÉS, R. (ed.) (2014) Abstracts in Academic Discourse. Berna: Peter Lang
CASTELLÓ, M. (koord.) (2007) Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Crítica y fundamentos. Bartzelona: Graó
EUSKALTZAINDIA. 1986. Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak
EUSKALTZAINDIA (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera
GOTI, M. (ed.) (2012) Academic Identity Traits. Berna: Peter Lang
GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2003) Aproximaciones al lenguaje de la ciencia. Burgos: Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua. Colección Beltenebros.
ITURBE, J. eta TXURRUKA, J.M. (2020) Amets bikoitza. Euskara zientifikotzen eta zientzia euskaratzen. EHUko Argitalpen Zerbitzua.
KAUR, K., AFIDA, M.A. (2018) "Exploring the Genre of Academic Oral Presentations: A Critical Review" International Journal of Applied Linguistics & English Literature. Vol.7, 1
UZEI. 1982. Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera
VALEIRAS, J., RUIZ, M.N., JACOBS, G. (2018) "Revisiting persuasion in oral academic and professional genres: Towards a methodological framework for Multimodal Discourse Analysis of research dissemination talks" Ibérica: Revista de la Asociación Europea de Lenguas para Fines Específicos (AELFE), Nº. 35: 93-118
VÁZQUEZ, G. (2001) El discurso académico oral. Guía didáctica para la comprensión auditiva y visual de clases magistrales. Madrid: ADIEU.
YOUNG, K.S. eta TRAVIS, H. P. (2018) Oral communication: skills, choices, and consequences. Illinois: Waveland press. (4. argitalpena, 1. argitalpena 2012)
ZUAZO, K. (2005) Euskara batua. Ezina ekinez egina. Elkar.
ZUAZO, K. (2008) Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar.

Aldizkariak

Elhuyar aldizkaria

<http://aldizkaria.elhuyar.eus/>

Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Aldizkaria <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ekaia>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.euskaltzaindia.eus/>

<http://www.hiztegia.net/>

<http://hiztegiak.elhuyar.eus/>

http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/kontsultak/

<http://ehu.eus/ehg/zehazki/>

<http://www.euskara.euskadi.eus>

<http://www.ei.ehu.es>

<http://www.elhuyar.eus/>

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/ehulku-aurkibidea/>

<http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>

<http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.eus/p267>-http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu <http://31eskutik.eizie.eus/>

<http://www.erabili.eus/>

<http://gaika.ehu.eus/eu>

<https://zientziakaiera.eus/>

<http://teknopolis.elhuyar.eus/?lang=eu>

<https://ahotsak.eus/>

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

26706 - Egitura Organikoak Zehaztea

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honetan egitura organikoak zehazteko erabilgarriak diren metodo espektroskopikoak azaltzen eta erabiltzen dira. Erabiliko diren esperimenduak Kimika Organiko II irakasgaiaren ikasitakoak eta zenbait aurreratuago izango dira.

Komenigarria da Kimika Organikoa I eta Kimika Organikoa II gaindituta izatea.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Irakasgai honetan Ikasleak konposatu organikoen zehaztapenerako metodo espektrometrikoak ikasiko ditu. Izan ere, irakasgaiaren honako gaitasun hauek landuko ditu:

M03CM11: Kimikarekin eta antzeko zientziekin erlazionatutako prozesuak eta fenomenoak era ulerkorrean, ahoz eta idatziz, azaltzeko ahalmena, euskaraz edota gastelainaz eta ingelesez.

M03CM13: Problema kimiko desberdinak konpontzeko, sintesi-prozesuak eta bestelako esperimenduak diseinatzeko eta burutzeko gaitasuna baita teknika instrumentalak erabiltzeko ere.

M03CM15: Informazio eta datu kimikoak ebaluatzeko, analizatzeko, sintetizatze eta aurkezteko ahalmena.

M03CM17: Konposatu organikoen egiturak zehazteko baliabideak ezagutzea, erabiltzea eta lortutako emaitzak modu egokiro interpretatzea.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

1. Erresonantzia magnetiko nuklearra. ¹H, ¹³C eta beste nukleo batzuk. Instrumentazioa. Lerrakuntza kimikoa. Akiplamendua. EMN espektroak interpretatzeko teknikak. EMN esperimendu bidimentsionalak.
2. Masa espektrometria. Espektroa erregistratzea. Nitrogenoaren araua. Bereizmena. Formula molekularrak zehaztea. Zatiketa erreazio nagusiak.
3. IR Espektrofotometria. Funtzio taldeen eta IG absortzio banden arteko erlazioa.
4. UV-Vis Espektrofotometria. Transizio elektronikoak. Kromoforoak eta uxokromoak. Konjokazioa.
5. Molekula Organikoak zehaztea ikasitako teknika espektroskopiko guztiez baliatuz.

METODOLOGIA

Irakasgai honetan eskola magistralak, ariketa eskolak eta mintegiak erabiliko dira gaitasunak lantzeko: Erabiliko diren metodologiak honako hauek dira:

ESKOLA MAGISTRALETAN

Metodo espektroskopikoen oinarriak, metodo horiek ematen dizkiguten datuak eta datu horiek egitura-determinaziorako erabili ahal izateko gakoak izango dira eskola hauen ikasgaiak. Irakasleak metodorik egokienak erabiliko ditu ikasleengana informazioa helarazteko eta eskolak dinamizatze. Hainbat metodologia erabiliko dira (puzzle teknika, gela iraulia, socratic testak, azalpen klaseak); Ikasleak egelan izango du eskuragarri eskola hauetan erabiliko den materiala edo nola eskuratu (pdfak, bideoak, estekak);

ARIKETA ESKOLAK

GA orduen kopurua oso altua da irakasgai honetan. Lehen aipatu dugun moduan teknika espektroskopikoek eman ahal diguten informazioa ustiatzeko kimikariaren giza adimena trebatu beharra dago eta hori lortzeko prozedurarik eraginkorrena errealitatezko kasuetan oinarritutako ariketak ebaztea da. Ariketak lantzeko orduan metodologiak desberdinak erabiliko dira:

1. Ariketak alde zuzenik proposatuko dira, ikasleak etxean egin beharko ditu eta klasean zuzenduko dira zalantzak argitzeko asmoz.
2. Ariketak klasean proposatu eta egingo dira bikoteka edo taldeka. Gelan egiteak irakasle-ikasle eta ikasle-ikasle feedback aprobetxatzeko aukera emango du. Taldeari sortutako zalantzak guztion artean eta irakaslearen laguntzarekin argituko dira.

3. Ikasleek banaka egingo dute klasean proposatutako ariketaren bat aurrerapen pertsonala ikusteko.

Arlo guztietan eta bereziki egitura organikoen zehaztapenean praktika ezinbestekoa da emaitzak lortzeko, beraz, teoria eta lana egunean izatea ezinbestekoa izango da gaitasunak eskuratzeko.

MINTEGIAK

1. Ikasleak aldez aurretik prestatu beharko du gai jakin bat (adibidez, infragorrien bibrazio bandak, 1H EMN-ko multipleteen zuhaitz diagramen analisia …) eta mintegian gai horietan oinarritutako problema praktikoa(k) ebatziko d(it)u. Oro har, banaka egingo dira problema hauek eta irakasle-ikasle feedback pertsonala izango da.
2. Lauhileko amaieran ikasleek bikoteka molekula konplexu baten egitura zehaztu beharko dute irakasleak emandako datuak erabiliz. Mintegietan, molekularen egitura-determinazioa burutzeko jarraitutako estrategia, molekularen egitura eta seinaleen esleipena azalduko diete ikaskideei. Gainera irakasleak eta ikaskideek proposatutako galderak erantzun beharko dituzte.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	20	6	34						
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	30	9	51						

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 70
- Banakako lanak % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

OHIKO DEIALDIA:

EBALUAZIO JARRAITUA

Azken emaitza kalkulatzeko honako atal hauek kontuan hartuko dira:

1. Idatzizko azterketa: teoriari buruzko galderak eta ariketak izango ditu. Azken notaren ehunekoa: %70. Gutxieneko nota: 4.
2. Banakako lana: Kurtsoan zehar egindako ariketak eta galdetegiak. Azken notaren ehunekoa: %20. Gutxieneko nota: 4.
3. Talde-lana: Kurtsoan zehar taldeka egindako ariketak edota lanak. Azken notaren ehunekoa: %10. Gutxieneko nota: 4.

Ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatutako izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzi asteko epea izango du.

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, deialdiari uko egin nahi dioten ikasleek kasuan kasuko irakasgaiaren irakaskuntza aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete lehenago egin beharko dute eskaria. Eskari hori idatziz aurkeztu beharko zaio irakasgaiaren ardura duen irakasleari.

AZKEN EBALUAZIOA

Idatzizko azterketa: teoriari buruzko galderak eta ariketak izango ditu. Azken notaren ehunekoa: %100. Gutxieneko nota: 5.

Azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EZOHIKO DEIALDIA:

Idatziko azterketa: teoriari buruzko galderak eta ariketak izango ditu. Azken notaren ehunekoa: %100. Gutxieneko nota: 5.

Azterketa egun ofizialean egin beharreko probara ez aurkezte hutsak ekarriko du automatikoki kasuan kasuko deialdiari uko egitea

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Modalitate ez-presentziala egin behar izatekotan ikasleak beharko du ordenagailua eta interneterako konexioa klaseak jarraitzeko eta azterketa egiteko. Ariketak eskaneatzeko edo argazkiak ateratzeko tresna bat (mugikorra, tablet, ordenagailua...) ere beharrezkoa izango da.

Azkenik, ezinbestekoa izan ez arren inprimagailua komenigarria izan daiteke espeketroak paperean aztertzea errazagoa baita.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

HESSE, M.; MEYER, V; ZEEH, B. Métodos espectroscópicos en Química Orgánica, 2ª ed. revisada, Síntesis, Madrid, 2005.

PRETSCH, E.; BÜHLMANN, P.; AFFOLTER, C.; HERRERA, A.; MARTÍNEZ, R. Determinación estructural de compuestos orgánicos. Tablas, Masson, Barcelona, 2005

Gehiago sakontzeko bibliografia

WILLIAMS, D. W.; FLEMING, I. Spectroscopic Methods in Organic Chemistry, 6ª ed., McGraw-Hill, Londres, 2007.

FIELD, L.D.; STERNHELL, S., KALMAN, J. R., "Organic Structures from Spectra", 3ª Edición. Wiley, New York, 2002.

SILVERSTEIN, R. M.; WEBSTER, F.X.; KIEMLE, D. Spectrometric identification of organic compounds, 7ª ed., Wiley & Sons, Nueva York, 2005

P. Young, Practical Spectroscopy: The Rapid Interpretation of Spectra Data, 1st Edition, Brooks/Cole, 2000.

Aldizkariak

The Journal of Chemical Education: <http://jchemed.chem.wisc.edu/>

Journal of Magnetic Resonance: <http://www.sciencedirect.com/science/journal/10907807>

The Journal of Organic Chemistry: <http://pubs.acs.org/journal/jocea>

Organic Letters: <http://pubs.acs.org/journal/orlef7>

European Journal of Organic Chemistry: <http://www3.interscience.wiley.com/journal/27380/home>

Tetrahedron: <http://www.sciencedirect.com/science/journal/00404020>

Organic and Biomolecular Chemistry: <http://www.rsc.org/Publishing/Journals/Ob/Index.asp>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.chem.ucla.edu/~webspectra/index.html>

<http://www.dq.fct.unl.pt/qa/jas/ir.html>

<http://www.cem.msu.edu/~reusch/VirtualText/Spectrpy/spectro.htm>

<http://www.cis.rit.edu/htbooks/nmr/inside.htm>

<http://www.ch.ic.ac.uk/local/organic/nmr.html>

<http://www.intermnet.ua.es/inteRMNet/>

<http://www.univ->

[lille1.fr/lcom/RMN2Dhttp://www.nd.edu/~smithgrp/structure/workbook.html/index1.htm#resum2D_us/index_us.htm](http://www.nd.edu/~smithgrp/structure/workbook.html/index1.htm#resum2D_us/index_us.htm)

http://www.uam.es/departamentos/ciencias/qorg/docencia_red/qo/l21/rmn.html

http://www.nmrdb.org/new_predictor/index.shtml?v=HEAD

OHARRAK

Osasun baldintzak irakasgaiari matrikulatutako ikasle osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

26708 - Gradu-amaierako lana

ECTS kredituak: 18**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Lanaren funtsezko helburua ikasleak heldutasuna erakustea titulazioaren gai propio bat, teorikoa zein praktikoa, aurrera eramateko, eta horrela indartzea jardura profesionalean behar dituzten gaitasunak. Era berean, lanak garapen jasangarriaren helburuekin lerrotzea bilatuko da, ahal den guztietan, kimika jasangarriaren printzipioak aplikatuz.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Gradu Memorian jasotako Modulu Aurreratuaren deskribapenean agertzen den bezala, GALari esleitzen zaizkion gaitasunak moduluko zeharkakoak dira, lan bakoitzari loturiko espezifikoak ezin baitira orokortu.

Kimikako Gradu Modulu Aurreratu zeharkako gaitasunak honako hauek dira:

- Esperimentuak modu eraginkorrean diseinatu eta planifikatzea problema kimiko errealak ebazteko.
- Jarduera esperimentalaren ondoriozko emaitza esanguratsuak interpretatu eta eztabaidatzea eta ondorioak txosten zientifiko-tekniko gisa eta ahozko aurkezpenetan islatzea.
- Lantalde batean funtzionatzeko jarraibideak ezagutzea diziplina anitzeko inguruetako proiektu berritzaileei heltzeko.
- Kimikari eta antzeko gaietara loturiko fenomenoak eta prozesuak ahoz eta idatziz azaldu ahal izatea, ulertzeko moduan, euskaraz eta/edo gaztelaniaz eta ingelesez.
- Informazioa eta ezagutzak erabiltzea Kimikari lotutako esparruetan edo sortzen ari diren esparru berrietan trebatzeko.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Ikus Kimikako Gradu Amaierako Lanaren Arautegia

www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea => Grados => TFG: Información general

METODOLOGIA

GALak honako jardura hauek bilduko ditu:

*Banakako tutoretzak, aurrez zuzendariarekin hitzartuta.

*Ikaslearen lan autonomoa, bere zuzendariak gidatuta, GALaren garapen, entrega, azalpen eta defentsa faseetan.

*Nahitaezko mintegi hezigarriak.

*Bestea jardura hezigarri batzuetan parte hartzea: GALaren gaiari loturiko hitzaldiak edo mintegiak.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak									
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a									

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Ahozko defentsa % 35

- Memoria % 65

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

*Aurkeztutako memoria: %65

*Defentsa: %35

Ebaluazio irizpideen inguruko zehaztasun gehiagorako ikus Kimikako Gradu amaierako Lanaren Arautegia

www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea => Grados => TFG: Información general

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

*Aurkeztutako memoria: %65

*Defentsa: %35

Ebaluazio irizpideen inguruko zehaztasun gehiagorako ikus Kimikako Gradu amaierako Lanaren Arautegia

www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea => Grados => TFG: Información general

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

1. Kimikako Gradu Amaierako Lanaren Arautegia
2. ZTF-FCT-ko Gradu Amaierako Lanaren Arautegia
3. UPV/EHUko Gradu Amaierako Lanaren Arautegia

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

www.ehu.eus/eu/web/zientzia-teknologia-fakultatea => Grados => TFG: Información general

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

28278 - Idatzizko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

IRAKASGAI HAU EUSKARAZ BAINO EZ DA ESKAINTZEN.

Irakasgai hau hautazkoa da Kimikako Gradu 4. mailako ikasleentzat. Komunikazio zientifiko-teknikoa landuko da: dokumentazioa, berrikuspen bibliografikoak eta testu-genero ohikoena. Horretarako, espezializazio maila desberdinetako idatzizko eta ahozko testuak landuko dira: ikerketa-artikuluak, dibulgazioak, testu didaktikoak, lexikografikoak, eta ahozko aurkezpen akademikoak. Berariaz sakonduko da idatzizko komunikazio zientifikoan. Espezialitate-alorreko terminologia eta adierazpideak ere landuko dira aipatutako testu-generoekin lotuta.

Irakasgai honek (IKZTEK) lotura zuzena du gradu berean eskaintzen den Ahozko komunikazio zientifiko-teknikoa euskaraz (AKZTE) hautazko irakasgaiarekin (4. mailan egin daitekeena hau ere; bigarren lauhilekoan). AKZTE irakasgaietan, idatzizko komunikazio zientifikoak landuko bada ere, areago sakonduko da ahozko testu moten ezaugarrietan.

Halaber, IKZTE irakasgaietan lantzen diren edukiek eta trebetasunek lotura zuzena dute Kimikako Gradu zenbait gaitasun zehatzekin:

- G005. Emaidza esperimentalak eta informazio zientifikoak aztertze eta interpretatzeko gaitasuna, erabakiak hartzeko. Betiere, planteatutako arazoaren alde tekniko eta etikoak kontuan hartuta.
- G006. Informazioa eta ideiak maila zientifiko eta teknikoan eta gutxienez Europako Komunitateko bi hizkuntza ofizialetan transmititzeko gaitasuna. Betiere, IKTen ahalmenaz baliatuta.

Horretaz gain, Gradu Amaierako Lana prestatzen ari diren ikasleei oso baliagarri izango zaie irakasgai hau, testuak planifikatzeko, ekoizteko eta berrikusteko baliabideak landuko baitira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- 1-Goi-mailako tituludunek euskararen erabilera eta garapenean duten eraginaren kontzientzia hartzea, eta norberaren komunikazio-rola berraztertzea testuinguru horretan
- 2-Informazio zientifikoak bilatzea, ulertzea, sintetizatzea eta kritikoki aztertzea.
- 3-Ikerkuntzarekin, aholkularitza teknikoarekin eta irakaskuntzarekin lotutako arazoei aurre egiteko bideak adostea, aurkeztea eta argudiatzea, elkarlana baliatuta.
- 4-Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea (bereziki Interneten eskuragarri daudenak), askotariko komunikazio-egoeretan sor daitezkeen premiei egokiro erantzuteko mailan.
- 5-Unibertsitate- eta lanbide-esparruetako dokumentuak egokiro sortzea (curriculumak, inprimakiak, protokoloak, eskabideak...).
- 6-Zientzia arloko gaiak komunikatzea, komunikazio-testuinguruaren eskakizunak aintzat hartuta: txostenak, artikulua zientifikoak, testu didaktikoak, dibulgazio-testuak, testu lexikografikoak.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**EGITARAU TEORIKOA**

- 1.GAIA: Komunikazioaren oinarriak: testuen kalitatea
 - 1.1. Testua komunikazio-unitate linguistikoa: testuinguratzea, egituratzea eta testuratzea
 - 1.2. Testuen berrikuspenera
 - 1.3. Komunikazio espezializatuaren bereizgarri batzuk
 - 1.4. Ahozko eta idatzizko testuak
 - 1.5. Testu-sorkuntzarako eta berrikuspenerako kontsulta-baliabideak
2. GAIA: Zientzia-testuak: testu prototipikoen bereizgarri linguistikoak
 - 2.1. Parametro pragmatikoak eta zientzia-testuak
 - 2.2. Testu didaktikoak eta testu entziklopedikoak
 - 2.3. Ikerketa-testuak eta dibulgazio-testuak
 - 2.4. Zientzia-testuetan maiz erabiltzen diren zenbait diskurtso-eragiketa: testu-antolatzaileak, diskurtso-errutinak, aditzen hautapena.
 - 2.5. Erregistro akademikoaren zenbait bereizgarri: hitz elkartuen osaera eta idazkera, baliabide sinbolikoak diskurtsoan txertatzeko estrategiak eta izen-sintagma konplexuak.

jasoko dute aktan; deialdiari uko egiten ez dioten ikasleek, azken probara aurkezten ez badira, aktan GUTXIEGI kalifikazioa izango dute (zenbakizko kalifikazioa: 0).

EBALUAZIO JARRAITUA: KALIFIKAZIO-TRESNAK ETA EHUNEKOAK:

- Galdetegiak: % 20 (NAHITAEZ APROBATU BEHARREKOA)
- Ahozko aurkezpenak: % 30
- Portfolioa: % 50

EBALUAZIO EZ-JARRAITUA:

Bukaerako azterketarako orientazioak ezohiko deialdirako zehaztutako berberak dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaiaren % 100 azterketa bidez ebaluatuko da. Azterketa ordenagailu-gelan egingo da, hizkuntza-tresna elektronikoekin lotutako gaitasunak ebaluatu ahal izateko. Ahozkoa ere ebaluatuko da. Horretarako, azterketa egunean, idatzia bukatu ondoren, 10 minutuko ahozko aurkezpena egingo dute azterketara aurkezten diren ikasleek ordenagailu-gelan bertan. Aurkezpena egiteko diapositibak prest ekarri beharko dituzte azterketa egiten duten ikasleek.

TEST MOTAKO PROBA % 20 (NAHITAEZ APROBATU BEHARREKOA)
ARIKETA PRAKTIKOA(K) % 25
IDAZLANA % 25
AHOZKO AURKEZPENA % 30

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Irakasleak emandakoa: apunteak, artikulua eta ikasleak berak erabili beharko dituenak lanak prestatzeko.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

EZEIZA, J; ALDEZABAL, I., ELORDUI, A., ZABALA, I., UGARTEBURU, I., ELOSEGI, K. (2010) PREST: Unibertsitateko komunikazio-gaitasunen eskuliburua. EHuko Euskara Errektoreordetzaren sareko argitalpena:
<http://testubiltegia.ehu.es/Prest-komunikazio-gidaliburua>
ETXEBARRIA, J.R. (2011) Zientzia eta teknikako euskara arautzeko gomendioak. EIMArek estilo-liburua
http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/Zientzia_22_06.pdf
ETXEBARRIA, J.R. (2014) Komunikazioa euskaraz ingeniariartzan. Bilbo. EHU eta UEU
EUSKALTZAINDIA (2018) Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE).
https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&task=sarrera&Itemid=1161
EUSKALTZAINDIA "Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua" (Euskaltzaindiaren 87 araua)
https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0087.pdf
EUSKALTZAINDIA "Adierazpena euskalkien erabileraz: irakaskuntzan, komunikabideetan eta administrazioan"
(Euskaltzaindiaren 137 araua) https://www.euskaltzaindia.eus/dok/arauak/Araua_0137.pdf

Gehiago sakontzeko bibliografia

ALVARADO CANTERO, L. (2017) "Géneros académicos orales: Estructura y estrategias de la exposición académica"
Revista Nebrija de Lingüística Aplicada a la Enseñanza de las Lenguas.
ALCOBA, S. (1999) La oralización. Barcelona: Ariel Practicum.
BONDI, M. eta LORÉS, R. (ed.) (2014) Abstracts in Academic Discourse. Berna: Peter Lang
CASTELLÓ, M. (koord.) (2007) Escribir y comunicarse en contextos científicos y académicos. Conocimientos y estrategias. Crítica y fundamentos. Bartzelona: Graó
EUSKALTZAINDIA. (1986). Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak
EUSKALTZAINDIA (1992) Hitz elkartuen osaera eta idazkera
GOTTI, M. (ed.) (2012) Academic Identity Traits. Berna: Peter Lang
GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2003) Aproximaciones al lenguaje de la ciencia. Burgos: Fundación Instituto Castellano y Leonés de la Lengua. Colección Beltenebros.
ITURBE, J. eta TXURRUKA, J.M. (2020) Amets bikoitza. Euskara zientifikotzen eta zientzia euskaratzen. EHuko Argitalpen Zerbitzua.
KAUR, K., AFIDA, M.A. (2018) "Exploring the Genre of Academic Oral Presentations: A Critical Review" International Journal of Applied Linguistics & English Literature. Vol.7, 1
UZEI. 1982. Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera
VALEIRAS, J., RUIZ, M.N., JACOBS, G. (2018) "Revisiting persuasion in oral academic and professional genres: Towards a methodological framework for Multimodal Discourse Analysis of research dissemination talks" Ibérica: Revista de la Asociación Europea de Lenguas para Fines Específicos (AELFE), Nº. 35: 93-118
VÁZQUEZ, G. (2001) El discurso académico oral. Guía didáctica para la comprensión auditiva y visual de clases magistrales. Madrid: ADIEU.

YOUNG, K.S. eta TRAVIS, H. P. (2018) Oral communication: skills, choices, and consequences. Illinois: Waveland press. (4. argitalpena, 1. argitalpena 2012)
ZUAZO, K. (2005) Euskara batua. Ezina ekinez egina. Elkar.
ZUAZO, K. (2008) Euskalkiak euskararen dialektoak. Elkar.

Aldizkariak

Elhuyar aldizkaria <http://aldizkaria.elhuyar.eus/>
Ekaia. Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia Aldizkaria <http://www.ehu.es/ojs/index.php/ekaia>

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.euskaltzaindia.eus/>
<http://www.hiztegia.net/>
<http://hiztegiak.elhuyar.eus/>
http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/kontsultak/
<http://ehu.eus/ehg/zehazki/>
<http://www.euskara.euskadi.eus>
<http://www.ei.ehu.es>
<http://www.elhuyar.eus/>
<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/ehulku-aurkibidea/>
<http://ehuskaratuak.ehu.eus/kontsulta/>
<http://www.euskara-errektoreordetza.ehu.eus/p267>-http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/eu <http://31eskutik.eizie.eus/>
<http://www.erabili.eus/>
<http://gaika.ehu.eus/eu>
<https://zientziakaiera.eus/>
<http://teknopolis.elhuyar.eus/?!lang=eu>
<https://ahotsak.eus/>

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

26698 - Industria Kimika Analitikoa

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honetan analisi industrialeko arloan erabil daitezkeen protokolo eta metodologia analitikoak deskribatzen dira. Alde batetik industrian erabilitako zenbait prozesu analitiko ematen da eta produktu eta prozesuen kontrolerako beharrian analitikoak gailentzen dira. Besteak beste, off-line, at-line, in-line eta on-line izeneko teknika analitikoak deskribatzen dira eta horretarako ohikoak diren metodo instrumental ez-suntsikorak (UV-Vis-NIR, IR, Raman, XRF, etab.). Halaber, prozesuen kimiometria ere azaltzen da, aldagai askotariko analisisian eta irudien analisisian erabiltzen diren zenbait baliabide barne. Azkenik, erabilera handiko kasuak aztertuko dira, bai prozesu industrialak eta aplikazio nagusiak, hala nola, industria farmazeutikoa, metalen eraldaketa, jakien arloko industria, etab.

Irakasgai honetan, datuen tratamendu instrumentalaren lan egiteko praktikak ere barneratzen dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Kimikako graduko modulu aurreratuko hurrengo konpetentziak lantzen dira.

Espezifikokoak:

CM06: Prozesu industrialen ezaugarrien ezagutza eta prozesu eta produktuen kontrola egiteko beharrian analitikoaren ezagutza.

CM04: Metodo analitikoaren berrespenerako eta errekurtsioen gestio egokia gauzatzeko, laborategi kimiko baten beharrezkoak diren protokolo analitiko eta kalitate estandarrak ezartzea.

CM15: Datu eta informazio kimikoak ebaluatzea, interpretatzea, sintetizatzea eta transmititzea.

Zeharrekoak:

CM08: Arazo kimiko errealean aurrean konponbide eraginkorrak aurkitzeko esperimenduak diseinatu eta planifikatzea

CM09: Esperimenduetatik lortutako emaitzen interpretazio eta eztabaidatzea eta ondorio nagusiak aurkezpen, edota txosten zientifiko-teknikoetan adieraztea.

CM11: Prozesu kimikoetan gertatzen diren fenomenoak azaltzeko gai izatea, idatziz edota aurkezpenetan, euskeraz, gazteleraz edo ingelera.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

- Sarrera
- Prozesu industrialen ezaugarriak.
- Prozesu eta produktuen kontrola bermatzeko beharrian analitikoak
- Laborategi industrialak
- Prozesuen kontrola.
- Prozesu industrialetan erabiltzen diren metodo analitikoaren deskribapena: off-line, at-line, on-line, in-line.
- Metodo analitiko ez-suntsikorak. Metodo ez-suntsikorren ezaugarriak: instrumentuen muntaia eta ezaugarri analitikoak. Metodo espektroskopikoen aplikazioa: UV-Vis-Nir, IR, XRF, etab.
- Kimiometria aurreratua. Aldagai askotariko analisisa: sailkapena eta erregresioa. Kurben bereizmeneko metodoak.
- Kasu praktikoak: Industria arlo ezberdinetan aplikazioa, hala nola, industria farmazeutikoan, industria metalurgikoan, jakien industrian eta araztegiako uretan.

METODOLOGIA

M: magistrala

S: mintegiak

GA: gela praktikak

GO: ordenagailu geletan praktikak

GL: laborategiko praktikak. Laborategiko praktiketara etortzea nahitaezkoa da.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	3		12	15				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	4,5		18	22,5				

Legenda: M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 25
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 15
- Banakako lanak % 30
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 30

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio irizpideak:

1. Azken azterketa: %25
2. Laborategiko lana (%15)
3. Norbanako lanak eta ariketak (%30)
4. Aurkezpenak eta taldeko lanak (%30)

Irakasgaiaren batzbesteko nota minimoa 5.0 izan beharko du ikasleak irakasgaia gainditzeko.

Moldaketa honetan ohiko deialdian ebaluatua izateko uko egin nahi bada, ikasleak 2021/2022 ikasturteko 23. astea baino lehen adierazi beharko dio irakasleari. Uko egiterakoan, ebaluazioa azken azterketan oinarrituko da. Uko ez egiteak eta azterketara ez aurkezteak irakasgaiaren ez-gainditzea suposatuko luke.

Aldaketak modu egokian eta aurretiaz iragarriko dira ikasleei, ebaluazio estrategiak eta ebaluazio hori aurrera eramateko beharrezko baliabideak zeintzuk diren argi azalduz, beti ere ikaslegoen ebaluazioa ekitatez eta zuzentasunez egingo dela ziurtatuz.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdian jarraituko diren ebaluazio irizpideak ohiko deialdian jarraitu diren berdinak izango dira. Ebaluazio irizpideen 2, 3 eta 4 ataletan lortutako nota gordeko da eta ikasleek 1. atalaren frogaz izango dute.

Aldaketak modu egokian eta aurretiaz iragarriko dira ikasleei, ebaluazio estrategiak eta ebaluazio hori aurrera eramateko beharrezko baliabideak zeintzuk diren argi azalduz, beti ere ikaslegoen ebaluazioa ekitatez eta zuzentasunez egingo dela ziurtatuz.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Laborategiko koadernoak, Laborategiko bata, Segurtasunerako materiala (betaurrekoak, eskularruak, etab.), espatula eta beirazko errotulkia.

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- "Process Analytical Chemistry". F. McLennan and B.R. Kowalski. Blackie Academic Professional. New York, 1996.
- "Process Analytical Chemistry : Control, Optimization, Quality, Economy". Karl-Heinz Koch. Springer-Verlag. N.Y., 1999.

Gehiago sakontzeko bibliografia

- K.A. Bakeev (Ed.), Process Analytical Technology, Blackwell Publ. Oxford, UK, 2006.

Aldizkariak

Journal of Process Analytical Chemistry
(<http://www.infoscience.com/JPAC/>)
Industrial & Engineering Chemistry (<http://pubs.acs.org/loi/iechad>)
Applied Spectroscopy Reviews (<http://www.tandf.co.uk/journals/titles/05704928.asp>)
The Open Process Chemistry Journal (<http://www.bentham.org/open/toocpj/index.htm>)

Interneteko helbide interesgarriak

<http://www.cpac.washington.edu>
<http://www.ifpacnet.org>
<http://www.cpact.com>
http://www.analyticjournal.de/aj_navigation/ak_pat.htm

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

26131 - Industria Kimikako Proiektuak

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

"Industria Kimikako Proiektuak" irakasgaia 4.mailan Kimikako Graduan irakasten den derrigorrezko irakasgaia da eta Kimikako oinarrizko osagarrietan testuinguratuta dago Biokimika, Materialen Zientzia eta Ingenieritza Kimikoa irakasgaiekin batera.

Irakasgaia funtsezko lau bloketan banatzen da: I. Industria Kimikoa, non bere bilakaera historikoa testuinguratzen den eta oinarrizko zenbait industria kimiko aztertzen diren lehengaien, ekoizpen prozesuaren (diseinuaren) eta produktuen aplikazioaren ikuspuntutik; II. Instalazio kimikoen proiektuak, irakasgaiaren atal garrantzitsuenak da eta bertan industri-proiektuen faseak, kudeaketa eta dokumentazioa aztertzen dira, ingurugiroaren eta ekonomiaren ikuspuntuak barne; III. Planta Kimikoen segurtasuna, non industria kimikoen oinarrizko arriskuak aztertu eta neurtzen diren indize eta método desberdinak erabiliz, eta, IV.- Hondakinen kudeaketa, gas-partikula eta hondakin-uren kutsadurari bideratuta.

Kimikan Graduatuek izaera kimikoko instalazio industrialen proiektuak sinatzeko ahalmena dute. Hau horrela, industri kimikoetako proiektuak eratzeko beharrezko dokumentazioa, proiektuaren fase desberdinak eta bere planifikazioa/kudeaketa menperatu behar dituzte. Zentzu horretan irakasgai hau guztiz lotuta dago kimikariei beraien ogibidean dagozkien betebeharrekin, ikasleei ingeniartzako proiektuak garatzeko erremintak eskaintzen zaien heinean. Gainera, Ingenieritza Kimikoa irakasgaiarekin batera, industria kimikoko prozesu berriak ezagutarazi, eta lehengaiak balio erantsiko produktuetan bilakatzeko beharrezko diren eragiketen diseinu eta dimentsionamenduaren berri eskaintzen zaie, besteak beste.

Irakasgaia zailtasun handiegirik gabe aurrera eramateko materia eta energia balantze arruntak ebazteko gaitasuna izan beharko du, 3. mailako Ingenieritza Kimikoko irakasgaiaren dagoeneko joratuak izan direnak, alegia.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Oinarrizko gaitasunak, gaitasun espezifikoak eta zeharkakoak Graduko memoria berifikatuaren barnean zehazten dira eta ondokoak dira:

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

M02CM07 - Kimikaren oinarrizko printzipioak industriako eragiketa kimikoei eta instalazio kimikoen proiektuen gauzatzeari aplikatzeko gaitasuna lortzea.

ZEHARKAKO GAITASUNAK:

M02CM10 -Kimikaren alorreko eta beste alor batzuetako informazioa bilatzeko eta aukeratzeko gaitasuna izatea, bibliografia eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz.

M02CM11 - Kimika beste diziplinekin erlazionatzeko gai izatea eta bere eragina gaur eguneko gizartean bere garrantzia industri kimikako sektorean ulertzea.

Ikasleek lortu beharreko IKASKETA-EMAITZAK jarraian azaltzen dira:

- Industria kimikoaren bilakaera historikoa eta etorkizuneko joera deskribatzea eta aztertzea.
- Industria kimiko garrantzitsuenen produktuen ekoizpenerako prozesuak aztertzea diseinu eta eragiketa-estrategiak aintzat hartuta.
- Industria kimikoen produktuen ekoizpenerako ekoizpen prozesuaren eskema orokorra deskribatzea, aztertzea eta arrazoitzea.
- Oinarrizko produktu kimikoen aplikazioak deskribatzea.
- Informazio tekniko eta zientifikoa bibliografian bilatzea eta alderatzea.
- Industri-proiektu tekniko baten faseak identifikatzea eta aztertzea.
- Kronograma desberdinen bitartez proiektuaren faseen denboralizazioa eta etapa kritikoak aztertzea.
- Proiektu baten dokumentu desberdinak (memoria, planoak, etab.) deskribatzea eta adibideak ematea industria kimiko desberdinen proiektuak hartuta.
- Segurtasuna eta ingurugiroarekiko inpaktua neurtzea eta arrisku indize desberdinak erabiltzea.
- Prozesu kimikoen fluxu diagrama desberdinetan bildutako informazioa aztertzea.
- Prozesu kimiko baten fluxu diagrama eraikitzea baliabide ofimatiko aproposak erabiliz (VISIO edo antzerakoak).
- Estimazio ekonomikoak eta amortizazioa burutzeko metodoak aztertu eta konparatzea.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Praktikat (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

ETENGABEKO EBALUAZIOA

Proba idatzia: %50

Irakasgaiaren kontzeptuen asimilatzea eta euren aplikazioa ariketa, problema edota kasu praktikoen ebazpenean ebaluatzeko proba/azterketa idatzia egingo dira partzialaren erdian eta amaieran. Azterketak/probak bi zati izango ditu, zati teorikoa eta ariketen atala izango ditu. (guztira nota minimoa 5, ariketen atalean nota minimoa 4)

Banakako edo taldekako lanak: %50

Hurrengo jarduerak kontsideratuko dira:

- Klase teorikoetan ikusiriko materiarekin erlazioa duten ariketak ebatzi eta entregatu beharko dira (%15-25)
- Irakasgaiarekin erlaziozaturiko gaien inguruan lanak egin beharko dira taldeka (%25-35)

Etengabeko ebaluazioan parte hartu nahi ez bada, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eskuan eta, horretarako, 9 asteko epea izango du, ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin ikasturtea hasten denetik kontaktzen hasita (8.3 artikulua, Graduoko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia).

AZKEN EBALUAZIOA

- Azterketa: %100: Teoria + ariketak

Etengabeko ebaluazioaren kasuan, azken probaren pisua bada irakasgaiko kalifikazioaren % 40 baino handiagoa, nahikoa izango da proba horretara ez aurkeztea azken kalifikazioa "aurkezteke" izan dadin (12.2 Artikulua, Graduoko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegia).

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

- AZTERKETA: Teoria + ariketak.

Ezohiko deialdian azken ebaluazioari uko egiteko nahikoa da azterketara ez aurkeztearekin.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

egela plataforma birtualean eskuragarri jartzen den materiala

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

I.- Vian Ortuño A., "Introducción a la Química Industrial" Ed. Reverté

II.- Gómez-Senent, E., Chiner, M., Capuz, S., "Dirección y gestión de proyectos". Ed. Universidad Politécnica de Valencia, Valencia (1994).

Gómez-Senent, E., "El proyecto, diseño en ingeniería". Ed. Universidad Politécnica de Valencia, Valencia (1997).

III.- Santamaría Ramiro, J.M. y Braña Aísa P.A. "Análisis y reducción de riesgos en la industria química", Ed. MAPFRE. Madrid (1994).

Gehiago sakontzeko bibliografia

Turton, R., Bailie, R.C., Whiting, W.B., Shaeiwitz, J.A., "Analysis, Synthesis, and Design of Chemical Processes", 2nd ed. Prentice Hall PTR (2003).

Peters, M.S., Timmerhaus, K.D., West, R.D., "Plant Design and Economics for Chemical Engineers" 5ª ed., McGraw-

Hill, Nueva York (2002).

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak

OHARRAK

Gomendagarria da 3. Mailako Ingeniaritza Kimikoa irakasgaia gainditua izatea

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztugabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

26697 - Ingurumen eta Auzitegirako Kimika Analitikoa

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Ingurumenaren analisisian eta auzitegiko analisisian ohikoak diren prozedura analitikoetan sakontzen duen irakasgaia da. Alde batetik in-situ analisisetan sakontzen da eta, beste alde batetik, laginaren aurretramentuan (laginaren mantentzea, babesa eta trazagarritasuna). Hemendik abiatuta, arlo bietan komunak diren teknika analitikoetan sakonduko da, kromatografia detektagailu aurreratueta (masa-espektrometria) akoplatuta dagoen sistemetan. Ondoren, arlo bietan aplikagarriak diren legediaren kontuak deskribatuko dira eta baita aplikazio nabarmenenak kasu praktikoetan oinarrituz. Teorian deskribatutako alde metodologikoetan sakontzeko laborategiko praktikak ere gauzatzen dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Espezifikoak:

CM05: Auzitegi eta ingurumen analisi adituen garapenerako araudien eta metodologia analitiko aurreratuaren ezagutza.

Zeharkakoak:

CM09: Arlo esperimentalean lortutako emaitzak interpretatzeko eta eztabaidatzeko gai izatea txosten zientifiko-tekniko eta ahozko aurkezpenen bidez

CM10: Talde-lanaren funtzionamendurako urratsak ezagutu testu inguru eta proiektu berritzaileak garatzeko.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Eduki Teorikoak:

1. Auzitegi eta ingurumen analisisaren sarrera.

I. ATALA. Ingurumen analisisa

2. Uraren analisisa: osagai nagusiak

3. Uraren analisisa: aztarna eta traza analisisa

4. Zoru, sedimentu eta biotaren analisisa

5. Atmosferaren analisisa: gasak

6. Atmosferaren analisisa: partikulak

II ATALA. Auzitegi analisisa

7. Auzitegi toxikologikoa

8. Ebidentzien analisisa: hondarren analisisa

9. Bestelako ebidentziak: zuntzak, margoak, beira, dokumentuen analisisa, lehergaiak.

Eduki Praktikoak:

Hiru praktika gauzatuko dira irakasgaia honetan:

1. Oxigenoaren eskaera kimikoaren (COD edo DQO) determinazioa hondakin uretan.

2. Dokumentazioen dataziorako fenoxietanol konposatuaren determinazioa dokumentuen tintetan gas kromatografia erabilita

3. Ebidentzien analisisa auzitegiko kimika analitikoan teknika ez suntsikorren bidez: infragorri espektroskopia eta Raman espektroskopia

METODOLOGIA

Metodologia aktiboa erabiliko da irakaskuntza modu gisa.

Horretarako klase magistralez gain, kontzeptu teorikoen lantzea metodologia aktibo ezberdinekin eramango da aurrera, bai gela praktiketara, zein mintegiko orduetan. Horrela, kasu praktikoak lantzeko erabiliko den metodologia/baliabideak honakoa dira:

* Kasu praktikoak proiektu laburren bidez: ariketa gidatuak lan-taldean (adituen lan-taldeak) ebazteko eta proiektuaren emaitzak azken txosten batean laburbildu.

* Ariketa labur gidatuak kontzeptu teorikoak lantzeko.

* Auto-ebaluazio testak.

* In-situ analisisien demo-ak eginez teorian landutako kontzeptuen eztabaida.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	30	6	4	20					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	45	9	6	30					

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 50
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 25
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 25

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

OHIKO DEIALDIRAKO EBALUAZIO IRIZPIDEAK

- * Azterketa (% 50): proiektuetan garatutako kontzeptuen jakintza minimoen azterketa eta ohiko irakaskuntza motan ikasitako kontzeptuen azterketa.
- * Mintegi eta gela praktiketan egindako ariketa eta proiektuak (% 25)
- * Praktiak eta praktiken inguruko jakintza minimoen azterketa (% 25)
- * Beharrezkoa da atal bakoitzean 4ko gutxieneko nota ateratzea irakasgaia gainditzeko

Moldaketa honetan ohiko deialdian ebaluatua izateko uko egin nahi bada, ikasleak 2023/2024 ikasturteko 9. astea baino lehen adierazi beharko dio irakasleari. Uko egiterakoan, ebaluazioa azken azterketan oinarrituko da (praktiken azterketa barne, %100). Uko ez egiteak eta azterketara ez aurkezteak irakasgaiaren ez-gainditzea suposatuko luke.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ez-ohiko deialdiko froga azken azterketa batean oinarrituko da, notaren % 100 izango dena. Bertan, ikasturteko froga guztiak barneratuko dira, praktikak barne.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Mantala, laborategiko betaurrekoak eta koadernoak

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

- R. Reeve. Introduction to Environmental Analysis. Analytical Techniques in the Sciences. John Wiley & Sons Ltd, 2002
L.H. Keith. Environmental sampling and analysis. Lewis Publ. 1991
FW Fifield, PJ Haines, Environmental analytical chemistry, Blackwell Publ. 2000
M. Radojevic, Practical environmental analysis, RSC, 1999
J.I. Khan, T.J. Kennedy, D.R. Christian Jr. Basic Principles of Forensic Chemistry. Humana Press. Springer Verlag, 2012
J. Siegel. Forensic Science: the basics. Taylor & Francis. 2007
S. Bell. Forensic Chemistry. Prentice Hall. 2006
C. García Ruiz. Introducción a la Química Forense, JM Bosch Editor, 2020

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Zhang. Fundamentals of environmental sampling and analysis. Wiley Interscience. New Jersey, USA, 2007
J.R. Almirall, J.D. Winefordner, Forensic Chemistry, John Wiley & Sons, 2009
X. Domenèneh, J. Peral. Química Ambiental de sistemas terrestres. Editorial Reverte, 2006
W. Stumm, J.J. Morgan. Aquatic Chemistry. Wiley Interscience, 1996
J. Siegel, G. Knupfer, P. Saukko (eds) Encyclopedia of Forensic Sciences, Vol1-3, Elsevier, Amsterdam 2000

Aldizkariak

- Journal of Hazardous Materials
Water Research
Science of the Total Environment
Chemosphere
Trends in Environmental Analytical Chemistry

Regulatory Toxicology and Pharmacology
Forensic Science International
Journal of Forensic Sciences

Interneteko helbide interesgarriak

EPA www.epa.org

OSHA/NIOSH www.cdc.gov/niosh

ASTM(American Society for Testing and Materials) www.astm.org

USGS (U.S. Geological Survey) <http://pubs.usgs.gov/turi>

AOAC (Association of Official Agricultural Chemists) www.aoac.org

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

26699 - Interfaseak eta Koloideak

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Irakasgai honetan fasearte-efektu nagusiak dituzten sistemak ikasten dira ikuspuntu kimiko-fisiko aplikatuaren aldetik, eta interfaseen propietate mekaniko, termodinamiko eta mikroskopikoak aztertzen dira. Ondoko interfaseak ikasiko dira: gas-likido, likido-likido, gas-solido eta solido-likido, eta bakoitzak sistema kimikoetan duen garrantzia ebaluatuko da. Beraz, garrantzia praktikoa duten arloak jorratuko dira, besteak beste detergente-ahalmena, aparren eta aerosolen eraketa, sistema-koloidal-motak eta horien formazio- eta egonkortze-mekanismoak; horren helburua sistema horien aplikagarritasuna zehaztea izango da zenbait arlotan, besteak beste elikaduran, kosmetikan edo petrolio-industrian. Eduki teorikoak laborategiko praktika errazen bidez osatuko dira. Kimika Fisikoaren printzipioak ezagutu behar dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Gaitasun espezifikoak

- Fasearte-efektuen menpe dauden sistemetan oinarri kimiko-fisikoak aplikatzeko gaitasuna.
 - Fasearte mota ezberdinak bereiztea eta sistema kimikoetan duten garrantzia ebaluatzea
 - Sistema koloidal motak, eratze mekanismoak eta egonkortzea ezagutzea haien erabilera industriala determinatzeko.
 - Erabilera teknologikoak bereizteko, gainazal solidoen egitura eta propietateak deskribatzeko gai izatea eta gainazalen gainean absorbitutako molekulen ezaugarriak ezagutzea.
 - Nanoegituren eta nanomaterial mota eta ezaugarri nagusiak ezagutzea aurrerapen zientifiko-teknologikoan izan dezaketenen eragina ebaluatzeko.
 - Sistema kimikoetan, ikuspuntu fisiko-kimikotik, efektu koloidalaren eta fasearte- efektuen garrantzia ebaluatzeko eta erabilera industriala aztertze gaitasuna
- Zeharkako gaitasunak
- Jarduera esperimentalean lortutako emaitzak interpretatzeko eta eztabaidatzeko gaitasuna, baita ateratako ondorioak txosten zientifiko-teknikoen eta ahozko aurkezpenen bidez komunikatzeko ere.
 - Gainazal kimikarekin erlazioatutako prozesuak eta fenomenoak era ulerkorrean, ahoz eta idatziz, azaltzeko ahalmena, euskaraz edota gastelainaz eta ingelesez.
 - Kimikarekin erlazioaturiko eremu berrietan, informazioa eta jakintzak ondo erabiltzea.
(M03CM02, M03CM09, M03CM11, M03CM12)

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Gainazalak eta fasearteak. Gainazal-tentsioa
Absortzioa likido gainazaletan
Gainazal absortzioa likidoetan. Gibbs-en isoterma eta gainazal filmak likidoetan
Sistema koloidalak: egonkortzea. Emultsioak, aparrak eta aerosolak.
Gainazal solidoak. Teknika esperimentalak
Absortzioa solidotan. Kimisortzioa eta fisisortzioa.
Nanoegitura eta nanomaterialak.

Bi praktika egiten dira laborategian, tesioaktibo baten kontzentrazio mizelar kritikoaren determinazioa eta gainazalak aztertze teknika landuko dira.

METODOLOGIA

Klase magistraletan oinarrituko da, gelako praktketan proposatutako ariketak eta jarduerak landuko dira. Koloide eta gainazal zientziekin erlazioaturiko lanak proposatuko dira: Hauetan klase magistraletan landu ez diren edukiak gehitzen saiatzeko. Lanak binaka edo banaka egin ahal dira. Laborategian ikasgaiaren alde esperimentala landuko da. Laborategiko txostenetan emaitza esperimentalen interpretazioa, eztabaida eta ateratako ondorioak azaltzea eskatuko dira.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	33	6	15	6					
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	49,5	9	22,5	9					

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p.
GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p. GCL: P. klinikoak
TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio jarraituaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 40
- Test motatako proba % 10
- Praktiak (ariketak, kasuak edo buruketak) % 20
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20
- Lanen, irakurketen... aurkezpena % 10

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Laborategiko praktikak derrigorrezkoak dira.

Goiko ebaluazio tresna bakoitzean irakasgaiaren batz besteko nota osoa egiteko gutxieneko nota 3 izango da. Graduoko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren arabera, deialdiari uko egiten dioten ikasleek «aurkezteke» kalifikazioa jasoko dute eta horretarako nahikoa izango da azken probara ez aurkeztea. Bestalde, ebaluazio probak gutxien dela hurrengo ikasturtea amaitu arte irakasleek gorde beharko dituzte.

Gainera, ikasleek eskubidea izango dute azken ebaluazio bidez ebaluatuak izateko, etengabeko ebaluazioan parte hartu zein ez hartu. Eskubide hori baliatzeko, ikasleak etengabeko ebaluazioari uko egiten diola jasotzen duen idatzi bat aurkeztu beharko dio irakasgaiaren ardura duen irakasleari eta, horretarako, bederatzia asteko epea izango du ikastegiko eskola egutegian zehaztutakoarekin bat lauhilekoa hasten denetik kontatzen hasita.

Besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere.

Ebaluazioa "Protokoloa, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzkoa" jarraituz burutuko da. Zehazki 4. artikuluan aipatzen diren jarraibideak erabiliko dira fraude, plagio edo kopia zalantzen aurrean.

Osasun baldintzak irakasgaiaren matrikulatutako ikasleko osoaren edo ikasle batzuen ebaluazioa arestian deskribatutako baldintzetan egitea ahalbideratuko ez balu, Errektoretzak emandako, eta indarrean dauden, ebaluazioaren jarraibideak beteko dira.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Graduko Titulazio Ofizialetako Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiaren arabera, ezohiko deialdietan irakasgaiak ebaluatzeke sistema bakarra azken ebaluazioa izango da. Ezohiko deialdiko azken ebaluazioko probak ohiko deialdiaren pareko baldintzetan ebaluatuko dira. Ikasleek ikasturtean zehar eskuratutako emaitza positiboak gordeko dira. Aldiz, ikasturtean zehar egindako etengabeko ebaluazioaren emaitzak negatiboak badira, emaitzak ezin izango dira ezohiko deialdirako mantendu eta ikasleek kalifikazioaren % 100 eskuratu ahal izango dute.

Besterik adierazi ezean, UPV/EHUko ebaluazio probetan ikasleek debekatuta izango dute liburuak, oharra edo apunteak erabiltzea, bai eta tresna edo gailu telefoniko, elektronikoa, informatikoa edo bestelakoak erabiltzea ere.

Ebaluazioa "Protokoloa, UPV/EHUko ebaluazio probetan eta lan akademikoetan jokabide makur eta iruzurrezkoak eragozteari eta etika akademikoari buruzkoa" jarraituz burutuko da. Zehazki 4. artikuluan aipatzen diren jarraibideak erabiliko dira fraude, plagio edo kopia zalantzen aurrean.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

Mantala, laborategiko betaurrekoak eta koadernoak

BIBLIOGRAFÍA

Oinarrizko bibliografia

P. Atkins, J. de Paula, Química Física, 8ª ed., Panamericana, 2008

Ira N. Levine, Fisicoquímica, 5ª ed., McGraw Hill, 2004

Geoffrey Barnes y Ian Gentle, Interfacial Science ¿ An Introduction, Oxford Univ. Press, 2005.

Gehiago sakontzeko bibliografia

Drew Myers, Surfaces , interfaces and colloids, Principles and Applications, Wiley, 1999

Arthur W. Adamson y Alice P. Gast, Physical chemistry of Surfaces, 6th ed., Wiley-Interscience, 1997

Hans-Jürgen Butt, Karlheinz Graf, Michael Kappl, Physics and Chemistry of Interfaces, 2nd ed., Wiley-VCH, 2008

Aldizkariak

Journal of Chemical Education

Journal of Colloid and Interface Science

Advanced in Colloid and Interface Science

Langmuir

Interneteko helbide interesgarriak

http://www.elsevier.com/wps/find/journaldescription.cws_home/622861/description#description

OHARRAK

IRAKASKUNTZA-GIDA

2023/24

Ikastegia 310 - Zientzia eta Teknologia Fakultatea**Zikl.** Zehaztu gabea**Plana** GQUIMI30 - Kimikako Gradua**Ikastaroa** 4. maila**IRAKASGAIA**

26703 - Kimika Organometalikoak

ECTS kredituak: 6**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

Kimika Organometalikoak ikasgaiaren metal-karbono lotura duten konposatuak aztertzen dira. Orokorrean, metalen bitartez konposatu organikoetan gerta daitezkeen aldaketak azaltzen dira.

Ikasgaiaren hautazkoa da Kimika Graduko laugarren mailako ikasleentzat.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasgai honi esker ikasleak:

1. Kimika Organometalikoaren oinarriko kontzeptuak menperatuko ditu.
2. Konposatu organometalikoaren sailkapena, sintesi bideak, propietateak eta erreaktibotasuna ikasiko ditu.
3. Katalisi homogeneoaren oinarriak ezagutuko ditu.
4. Kimika Organometalikoaren bibliografia eta informazio iturriak maneiatuko ditu. Dokumentazioa eta informazioa modu eraginkorrean erabiltzen ikasiko du.
5. Kimika Organometalikoaren arloko gaiak aurkezten eta defendatzen ikasiko du.
6. Kimikaren eta kide diren beste gaien prozesu eta fenomenoak euskeraz zein ingeleraz modu ulergarrian azaltzeko gaitasuna eskuratuko du.

CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS

Sarrera. Definizioa, aurrekari historikoak, nomenklatura, 18 elektroien araua.

Karbonilo metalikoak. Sintesi, propietateak eta erreaktibotasuna.

Metal-karbono sigma lotura duten konplexuak. Organiloak, karbono eta karbinoak. Sintesia, lotura eta egitura, erreaktibotasuna eta aplikazioak.

Metal-karbono pi lotura duten konplexuak. Alkenoak, alkinoak, aliloak, ziklopentadieniloak, arenoak. Konplexuak. Sintesia, lotura eta egitura. Erreaktibotasuna eta aplikazioak.

Erreakzio organometalikoak. Ligandoen trukaketa, eransketa oxidatzailea, eliminazio erreduzitzailea, insertzio-erreakzioak, erreakzio elektroizaleak eta nukleozaleak.

Katalisi organometalikoak sintesian eta ekoizpenean. Katalisi homogeneoa. Aplikazioak sintesi organikoan.

METODOLOGIA

